

Mendia: 70eko hamarkadan emakumeek Ondarroan egin zezaketen kirol bakarra

Gaztetatik lotura estua izan du Begoña Arrokerok kirolarekin eta egungo emakume kirolariei bidea ireki dio

Begoña Arrokeroko Ibaibagarria



Emakumea eta kirola aipatzean oztopoen zerrenda luzea izendatu genezake eta gaztetatik ikusi du hori Begoña Arrokeroko Ibaibarrigak (Ondarroa, 1961). Egia da, gizartea eraldatzen doan heinean eta feminismoa bere lana egiten doan honetan, emakumeak inoiz izan ez dituzten esparruak hartzen dabiltzala, hala nola, kirolaren eremua.

11barri.eus/testu-bankua

EMAKUMEA ETA KIROLA: Biografiak

11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ



Kirolerako zaletasun handia izan du beti Arrokerok, baina aurretiaz aipaturiko oztopo horiek aurkitu ditu txikitatik. Aurrera Mendi Taldeak antolatutako mendi irteeretara joaten zen haurra zela, bere izeba eta osabarekin, hori baitzen 70eko hamarkadan neskek Ondarroan egin zezaketen kirol bakarra. Eskolako jolastokian ere rola ondo banatuta zeuden: mutilek futbola, jolastoki guztia eurenganatu, eta neskek soka saltoa.

Jose Mari Naberan (Ondarroa, 1946-2015) izan zen Begoña Arrokerori atletismoan aritzeko bultzada eman ziona. Naberanen alaba, Nekane Naberan, Zubi Zahar Ikastolan hasi zenean, gorputz heziketan hutsunea zegoela ikusi zuen eta are gehiago, emakumezkoentzat ez zegoela ezelako kirol aukerarik jabetu zen. Beraz, Naberanen helburua Atletismoarekin guztientzako oinarrizko kirola lantzearekin batera, kirola neskei zabaltzea ere bazen. Bera izan zen Ondarroan emakumeak kirola egiteko aukerari bidea ireki ziona.

Arrokerok bazuen Naberanen berri, bere ahizpa biak joaten baitziren Saturranera, entrenamendu horietara. Orduan, bere buruan argi zenukan: “ni horra joan behar naiz”. Baina denbora behar izan zuen, ez baitzen ausartzen. Baina ausartu zen, ahizpa biekin batera joan zen Saturranera eta hor hasi zuen bere atletismoko ibilbidea.

15 urte zituen Begoña Arrokerok lehen aldiz Saturrango zuloz beteriko korrikako pistan aringaringa egin zuenean. Apurka-apurka bakoitza bere espezialitatera egokitzen joan zen eta Naberanek xabalina bat eman zion eskura gazteari. Txapelketako atean geratu zen, lesionatu egin zelako.

Jose Mari Naberan bezalako pertsona bat azaltzeak kirolerako bideak irekitzeaz gain, bizitzan bertan ere aukerak zabaldu zion gazteari eta horrela, monitore titulua atera eta Ondarroako institutuan gorputz-hezkuntza irakasle izateko postura aurkeztu zen. 19 urte zituen institutuan bertan irakasle bezala lanean hasi zenean.

Ondorengo emakume kirolariei jarraibidea eman die Arrokerok eta gaur egun, hainbeste emakume kirola egiten ikusteak, poz handia ematen dio, bere garaian ez baitzen ohikoa. Gorakada horren ondorioetako bat da kirol-materialarena, zegoen bakarra gizonezkoena baitzen: bizikletako arropak, txandala, oinetakoak... bizikletako eserlekua adibide garbia da. Arrokeroren gaztaroan ez zegoen emakumearen fisionomiara egokitutakorik gaur egun ordea, bai.

“Lehen ez zegoen emakumearekin pentsatutako bizikletako eserlekurik. Ipurdia eta ipurdia ez zena ere erabat minberatua amaitzen zenuen. Eta uste zenuen horrela izan behar zela!”

Egun, jubilatuta berri, kirola egiten jarraitzen du, adibidez spinning, mendia edo udan igeria. Lasterketak egiteko gogoz dabil Arrokerok. Izan ere, gustatuko litzaioke berriro lehiaketetan hastea, lasterketetan. Epe motzeko helburutzat du mendi lasterketa edo maratoiren bat egitea.

